




Fatxada birgaitzea

1





Fatxada birgaitzea

2

AURKIBIDEA

ZERGATIK ISOLATU FATXADA	3
FATXADETAN ISOLAMENDU TERMIKOA SARTZEKO SISTEMAK	4
OBRA	5
MATERIAL JASANGARRIAK	7
MANTENTZE-LANAK	8
INBERTSIOA/DIRULAGUNTZAK	9
BESTE DATU BATZUK	10




Fatxada birgaitzea

3

ZERGATIK ISOLATU FATXADA



- **Berokuntzaren** kontsumoan % **30-40 aurreztea** aurreikusten da.
- Kondentsazio bidezko **hezetasun-arriskua minimizatzeko**.





Fatxada birgaitzea

4

FATXADETAN ISOLAMENDU TERMIKOA SARTZEKO SISTEMAK



- **Barruko trasdosatua.**
- **Aire-ganberak intsuflatzea.**
- **Kanpoaldetik isolamendu termikoa gehitzea.**
- Fatxadaren bidez bero-galerak murrizteko, **zubi termikoak minimizatzeko eta kondentsazio bidezko hezetasunak agertzeko arriskua murrizteko**, isolamendu termikoa sartu behar da kanpotik, LTZ baten edo fatxada aireztatu baten bidez.
- **LTZ fatxadaren kanpoaldetik isolamendu termikoko plakak finkatzen dituen sistema bat da**, morteroaren eta finkapen mekanikoen bidez. Plaka horiek morteroa luzitzeko geruzekin eta bertan sartutako beira-zuntzeko sare batekin estaltzen dira, mortero akrilikoz.
- **Fatxada aireztatua** da metalezko egitura baten bidez fatxadaren kanpoaldetik isolamendu termikoko geruza bat finkatzean datzan sistema bat. Egitura horrek kanpoko akaberaren euskarri gisa balio du, eta aire-ganbera bat uzten du kanpoko estalduraren eta isolamenduaren artean, fatxada bera aireztatzeko.
- Aipatzekoa da LTZ edo fatxada aireztatu bat jartzeak erabiltzaileek **aireztapen handiagoa izatea eskatzen duela.**




Fatxada birgaitzea

5

OBRA



- Beharrezkoa da fatxada birgaitzeko **proiektu bat** izatea. Proiektua arkitekto batek edo arkitekto tekniko batek egin dezake.
- Fatxada bat bakarrik birgai daiteke, baldin eta fatxada horrek **ez badu gainditzen eraikinaren inguratzailearen azaleraren % 25**, EKTren HE Oinarrizko Dokumentua aldatzen duen 732/2019 Dekretuaren arabera.
- Fatxada bat saneatu eta margotu daiteke isolamendu termikoko sistemarik gabe, baldin eta fatxada horrek **eraikinaren inguratzailearen azaleraren % 25 gainditzen ez badu**, EKTren HE Oinarrizko Dokumentua aldatzen duen 732/2019 Dekretuaren arabera.
- Isolamendu termikoa kanpoaldearekin espazio bizigarriak ixten dituzten paramentuetan instalatu behar da.
- Fatxada birgaitzeko **aldamio bat** behar da.
- Eraikinean igogailu bat jarri nahi izanez gero, igogailu berria eta eskailera fatxadatik irteten badira, fatxada berritu behar da igogailuaren obraren ondoren. Igogailua eta eskailera barrualdetik badoaz eta fatxadari eragiten ez badiote, ez du axolarik fatxada birgaitzeko eta igogailua jartzeko ordenak.





Fatxada birgaitzea

6

- Fatxada bat zaharberitzean, ez da beharrezkoa leihoak berritzea, baina gomendagarria da merkatuan dauden produktu eta prestazio berrien arabera. Laguntzak emateko eskatzen diren gutxieneoak lortzen laguntzen du. Berrituz gero, fatxada birgaitzeko obrak egin aurretik edo egin bitartean aldatu behar dira.
- Bai **LTZn bai fatxada aireztatuan**, beharrezkoa da leihoetako ertzak eta balkoietako barandak ordezea, burdinazkoak ez badira. Azken kasu horretan, aldatu egin daitezke.
- Balkoiei dagokienez, lurzoruen, sabaien eta fronteen **kontserbazio-egoeraren arabera** eraberritu beharko dira, baina, kasu guztietan, nahitaezkoa da lehen baldosa-ilara ordezkatzeta, eta, nolana ere, komeni da lurzoria altxatzea eta iragazgaiztea.
- Balkoian armairu, galdara, termo, berogailu edo beste elementuren bat badago, kendu egin behar dira fatxada birgaitzeko. Fatxada osoa isolatzen ez denean, zubi termikoak sortzen dira, eta kondentsazio bidezko hezetasunak agertzeko arriskua dago.
- Fatxada bat birgaitzen denean, **instalazioak kanpotik jarri behar dira**, irisgarriak izan daitezzen.
- **LTZ bat pintura akrilikoarekin** margotu daiteke.



Fatxada birgaitzea

7

MATERIAL JASANGARRIAK



- **Kalitate-ziurtagiriak** dituzten material homologatuak eta Europako Ebaluazio Teknikoaren (ETE) dokumentua duten saiakuntza-sistemak.
- **I. edo III. motako** produktuaren ingurumen-adierazpena izatea, produktu horiek beren ingurumen-inpaktuen berri ematen baitute (isolamenduak, zurak, iragazgaitzak, pinturak, bernizak eta itsasgarriak, etab.).
- **Material birziklatuen** erabilera lehenestea. Adibidez, agregakin birziklatuak eta beira birziklatua barne hartzen duten zeramikazko elementuak dituen morteroa, fatxada birziklatuen kasuan.
- **Bizi-amaierarako birziklagarriak diren** eta osagaiak erraz bereiz daitezkeen materialak erabiltzeari lehentasuna ematea. Adibidez, aldian behin euskarrira ainguratutako egitura duten fatxada aireztatuak erabiltzeak aukera ematen du elementuak bereizteko, birziklatzeko.
- Materialetan eta fatxadetako estalduretan (sandwich-panelak, txapa galbanizatuzko panelak, etab.), **gomendagarria da metal astunen eduki handia duten materialak eta estaldurak (beruna, kadmioa, kromoa, zinka, nikela) ez erabiltzea**, euri-urak kutsa baititzakete. Gainera, guztiz debekatuta dago beruna erabiltzea. Zenbait kasutan, aluminiozko edo altzairuzko estaldurak erabil daitezke.
- Fatxadan esmaltatutako zeramikazko produktuak erabiltzean, **haien esmalteek metal astunak (beruna, barioa, kadmioa, molibdenoa, selenioa, banadioa, zinka eta eztainua) izatea saihestea**.

Material
birziklatuak eta
birziklagarriak



Fatxada birgaitzea

8

MANTENTZE-LANAK



3 URTE

-Estalduraren kontserbazio egoera egiaztatzea (pitzadurak, luiziak, hezetasunak eta orbanak ager daitezke)

-Puntu berezien kontserbazio egoera egiaztatzea.

5 URTE

-Orri nagusian arrakalak, pitzadurak, amiltzeak edo bestelako deformazioak egon daitezkeela egiaztatzea.

10 URTE

-Zaurien edo kameraren aireztapen irekiduren garbitasun-egoera egiaztatzea.



Mantentze-lanak:
enpresa espezializatu
bateg.

30
urte

Bititza erabilgarria



Fatxada birgaitzea

9

INBERTSIOA/DIRULAGUNTZAK



- **LTZ**en gutxi gorabeherako prezioa, jarritako material gisa, **65 €/m²** da (BEZik gabe); **fatxada aireztatu** batena, berriz, **130 €/m²** (BEZik gabe).
- **Udal-, autonomia- eta estatu-**laguntzak daude.
- Eraikinak **50 urte baino gehiago** baditu edo laguntzak eskatu nahi badira, beharrezkoa da EIT edukitzea.
- Udal-tasei dagokienez, batetik, **obra-lizentziaren tasa** dago, obraren exekuzio-materialaren aurrekontuaren % 5 ingurukoa —baina udalerrri bakoitzaren arabera da—, eta, bestetik, **bide publikoaren okupazio-tasak** daude.



Fatxada birgaitzea

10

BESTE DATU BATZUK

· Obrak **obra handiko lizentzia** behar du, eta obraren kopia bat izatea gomendatzen da.

Fatxada bat birgaitzeko:

- LTZren kasuan, **jabe gehienen aldeko botoa behar da**, eta jabe horiek partaidetza-kuoten gehiengoa ordezkatu behar dute.
- **Aireztatutako fatxadaren** kasuan, obra hori hobekuntza bat denez, **jabeen 3/5en aldeko botoa** behar da, eta horiek, aldi berean, partaidetza-kuoten 3/5 ordezkatu behar dute.





Fatxada birgaitzea

**INFORMAZIO
GEHIAGO
HEMEN:**

www.debegesa.eus